

# Trukea egingo al dugu?

## 1. Trukea egin dutenen esperientziak

Gutxiago kontsumitzeko modu interesgarria izan daiteke zerbait trukatzea. Irakurri beheko esperientziak eta erantzun beheko galderei.

### ANE. Donostiarra

Gogoratzen naiz behin 11 urte nituela, eguberrietan, amak opariak erosi beharrean denok eskulan bat egitea proposatu zigula. Eskulan horiek elkarrekin trukatu genituen. Ze ondo pasa genuen lan horiek egiten. Gainera, nik uste gero opari horiekin gehiago gozatu genuela. Oraindik gordeta daukat ahizpak egin zidan poltsatxoa.

### PILI. Beasaingoa

Duela 10 bat urte udako opor batzuetan Britainiako etxe batera joan ginen eta Britainian bizi zirenak Beasainen dugun txaletera etorri ziren egun batzuk igarotzera. Bikote gazte bat zen; ez genuen elkar ezagutzeko aukerarik izan. Baina esperientzia interesgarria izan zen eta jarraitzeko gogoia piztu zitzaigun.

### JON. Durangarra.

Gure herrian bigarren eskuko arropako denda handi bat dugu. Eta askotan joaten naiz nire arropa edo etxeko gauzak eraman eta beste zerbaitekin trukatzera. Ideia bikaina iruditzen zait behar ez ditugun gauzak berrerabiltzeko. Gainera, hondakin gutxiago sortzeko irtenbiderik onena iruditzen zait.

Testigantza hauetan kontatzen den antzeko truke-esperientziarik izan duzu? Gustatu zitzaizun? Hauetatik zein truke iruditzen zaizu interesgarriena? Oporretarako etxea, jantziak, liburuak...

## 2. Nola egin gutxiago kontsumitzeko

Entzun zer dioten Amaia Otazok gutxiago kontsumitzeko egin dezakegunaz. Entzun audioa bi aldiz, eta ondoren, galdera hauen erantzun zuzenak aukeratu. Ariketa egin ondoren, erantzun zuzenak transkripzioan identifikatu.

**Gabonetan kontsumismo handia izaten da. Zer proposatzen du Amaiak irtenbide bezala?**

- ☐ Kontsumismoaren alde egitea.
- ☐ Opari "ez materialak" egitea.
- ☐ Oparietan diru asko ez gastatzea.

**Amaiak dioenez, zerbait oparitu nahi dugunean zer bilatzen dugu?**

- ☐ Pertsona horri emozio bat adieraztea.
- ☐ Mezu bat transmititzea.
- ☐ Oparia hartzen duenaren errekonozimendua.

**Zein motatako opariak proposatzen ditu Amaiak? Hauetako bi erantzun zuzenak dira.**

- ☐ Pertsona horri gure denbora eskaintzea.
- ☐ Mesedeak trukatzea: afaria egitea, haurrak zaintzea.
- ☐ Egiten ez dakien zerbait egiten erakustea.
- ☐ Afari edo bazkari batera gonbidatzea.

**Zer dio eskuz egindako opariei buruz?**

- ☐ Garrantzitsua dela pertsonaren gustuko zerbait egitea.
- ☐ Kreatibitate gabe oso zaila dela.
- ☐ Garrantzitsuena oparia egiteko prozesua bera dela.

### 3. Zeren truke: esaldiak osatu

Entzun duzun audioan Amaiak opari bezala, zerbait "trukatzea" proposatu digu. Ariketa honetan zerbaiten trukea adierazteko egitura landuko duzu. Irakurri beheko adibide eta azalpenak.

TRUKE EGIN /TRUKATU
Zer esan nahi du? Zerbait beste batekin aldatzea; bata besteari zerbait hartu eta besteak "trukean" beste zerbait ematea. Gaztelaniazko "intercambiar"
- Udalekuan oso ondo pasa genuen. Gainera, <b>elkarrekin</b> esperientzia interesgarriak <b>trukatu</b> genituen. - Azoka hartan era guztietako jostailuen <b>trukea egin</b> genuen=.era guztietako jostailuak <b>trukatu</b> genituen.
- (R)EN TRUKE /TRUKEAN
- Zuk mesede hori egiten badidazu, nik <b>horren truke</b> jostailu hau oparitukodizut. - Bota horiek oparitzen badizkidazu nik <b>trukean</b> nire motxila emangodizut.


Orain, osatu beheko elkarrizketak aukeran dauden esaldi-ataletako bat jarrita. Lehendabizi, komeni da elkarrizketak irakurtzea. Ondoren, jarri binaka eta elkarrizketak antzeztu.

#### 1. Egoera. GABONETAKO OPARIAK

- Aizu, Ane, pentsatu al duzu zer oparitu etxekoei aurtengo Gabonetan? Zergatik ez dugu \_\_\_\_\_
- Ez da ideia txarra. Iaz gure lantokian, bakoitzak eskulan bat egin eta gero,\_\_\_\_\_.
- Hori ba. Zuk gainera, marrazki zoragarriak egiten dituzu. Horiek presta ditzakegu oparietarako.
- Baina nik marrazkiak egiten baditut, zuk zer egingo zenuke \_\_\_\_\_
- Ba, nik \_\_\_\_\_oparien txarteltxoak prestatuko ditut.

#### 2. Egoera. TRUKE WEBGUNEA EZAGUTZEN?

- Aizu, Jon, ezagutzen duzu truke izeneko webgunea?  
Interesgarria da esperientziak eta produktuak \_\_\_\_\_
- Ez, baina gustora ezagutuko nuke.  
Aizu, eta\_\_\_\_\_egiten al da?
- Bai. Eta gainera, mendi-ibilbideei buruzko\_\_\_\_\_ematen du.
- Primeran. Gero sartuko naiz, ea zer itxura duen.



#### 4. Zer trukatuko duzu?

Orain, pentsa ezazu ganbaran dituzun traste zahar horietatik zein jarriko zenukeen trukerako webgune batean. Egin ezazu haren deskribapen zehatza, produktuaren onurak goraipatuz:

.....

.....

.....

# Zuzenketa-orria

Entzun ondoren galderen erantzun zuzena aukeratu

**Gabonetan kontsumismo handia izaten da. Zer proposatzen du Amaiak irtenbide bezala?**

- ☐ Opari “ez materialak” egitea.

**Amaiak dioenez, zerbait oparitu nahi dugunean zer bilatzen dugu?**

- ☐ Pertsona horri emozio bat adieraztea.

**Zein motatako opariak proposatzen ditu Amaiak? Hauetako bi erantzun zuzenak dira.**

- ☐ Pertsona horri gure denbora eskaintzea.
- ☐ Mesedeak trukatzeko: afaria egitea, haurrak zaintzea..

**Zer dio eskuz egindako opariei buruz?**

- ☐ Garrantzitsuena oparia egiteko prozesua bera dela.

Zeren truke: esaldiak osatu

## 1. Egoera. GABONETAKO OPARIAK

- Aizu, Ane, pentsatu al duzu zer oparitu etxekoei aurtengo Gabonetan? Zergatik ez dugu (opari trukea egiten?)
- Ez da ideia txarra. Iaz gure lantokian, bakoitzak eskulan bat egin eta gero, (elkarren artean trukatu genituen).
- Hori ba. Zuk gainera, marrazki zoragarriak egiten dituzu. Horiek presta ditzakegu oparietarako.
- Baina nik marrazkiak egiten baditut, zuk zer egingo zenuke (horren truke?)
- Ba, nik (marrazkien truke) opari txarteltxoak prestatuko ditut.

## 2. Egoera. TRUKE WEBGUNE EZAGUTZEN?

- Aizu, Jon, ezagutzen duzu truke izeneko webgunea? Interesgarria da esperientziak eta produktuak (trukatzeko)
- Ez, baina gustora ezagutuko nuke. Aizu, eta (mendiko arroparen trukea) egiten al da?
- Bai. Eta gainera, mendi-ibilbideei buruzko (informazioa trukatzeko aukera) ematen du.
- Primeran. Gero sartuko naiz, ea zer itxura duen.